

EUSKAL HIZTUNENTZAKO ZENBAIT GOMENDIO **interpretazioari dagokionez**

Ohar honen bidez zenbait gomendio egin nahi dira interpreteen lana erraztu eta hizlarien mezua hobeto emateko. Interpreteak beti saiatzen dira beren lana ahalik eta ongien egiten, eta lana ondo egiteak hizlariaren mezua hobeto ulertzen laguntzen du. Izan ere, interpreteak hizlariaren mezua beste inori ulertarazteko bitartekariak besterik ez direnez, lan hori hobetzeko hartzen diren neurri guztiak mezua hobeto komunikatzeko izango dira azkenean. Jakina denez, batzarkide erdaldunek ez ezik, kazetariak ere —eta haien bitartez herritarrek— hizlariaren mezua interpreteen bitartez jasotzen dute askotan, eta hori dela eta, hainbat eskakizun egin nahi dira interpreteen lana hobetzeko.

Testu idatziak: Bileran testu idatziak irakurriko badira, alde aurretik eman interpreteei.

Testu idatziak irakurtzen direnean askoz azkarrago hitz egin ohi da. Horrez gain, testu batean jasotako hizkera askoz landuagoa egoten da bat-bateko mintzaldian baino, esaldi luzeagoak eta kontzeptu korapilatsuagoak prestatzeko astia ematen baitu testua idaztean. Hori dela eta, eta testuak hitz egiten hasi baino bost minutu lehenago prestatzen ez direnez, irakurtzeko asmoz ekartzen diren testu guzti-guztiak alde aurretik (bezperan garaiz, interpreteek ere beren lan-ordutegia baitute) interpreteei pasatzeko eskatzen da (hitzaldia, ohar labur batzuk, egitaraua, norbaiti egingo zaizkion galdera jakin batzuk, hitzez hitz aipatuko den testu zati bat...). Mesedez, testu guztiak alde aurretik pasa, baina ez testu hori irakurri baino bost minutu lehenago, interpreteek ere testua goitik behera prestatzeko denbora behar baitute, egileak euskaraz eman dion maila bera emateko itzulpenean. Bestalde, kontuan izan interpreteek bilera horretarako prestatu eta itzultzeko beste testu batzuk ere izango dituztela. Esan gabe doa lana dela-eta jakindakoak isilpean gordetzera behartuta daudela interpreteak, lanbidearen deontologiak agintzen dien bezala.

Hizketaldiaren abiadura: Abiadura normalean hitz egin, ez motelegi ez bizkorregi.

Motelegi hitz eginez gero, interpreteak esaldiaren haria galdu dezake, eta bizkorregi eginez gero, berriz, hizlariak esandako guztiari jarraitu ezinean ibiliko da interpretea (kontuan izan batez besteko abiaduran irakurrita 3 minutuan orrialde bat irakurtzea jotzen dela normaltzat).

Isilpeko informazioa: Mikrofono guztiak ez itxi.

Batzuetan ez da nahi izaten informazioaren bat grabatzea. Halakoetan dagokionari esan ez grabatzeko, baina ez mikrofonoa itxi, gero bat-batean ireki eta interpreteak haria zeharo galduta duela hasi behar baitu itzultzen, hizlariak zeri buruz ari diren jakin gabe. Ez da ahaztu behar interpreteek lanean entzuten duten guztia beren kolkorako gordetzen dutela, eta haien ahotik, behintzat, ez dela bilkuran esandakorik aterako.

Mikrofonoa: Mikrofonaren inguruan ez egin zaratarik.

Mikrofonoa ba ote dabilen ikusteko zerbaite esan kolpetxo batzuk jo beharrean, kaskoak jarrita dituenarentzat mingarria gertatzen baita. Bestalde, ez egin zaratarik mikrofono aurrean irekita badago, eta ez eduki mikrofono bat baino gehiago irekita, bestela interpreteei hainbat lagunen jariora iritsiko zaie, eta nahasgarria gertatzen da.

Hizkera: "hizkuntzaren kalitatea".

Hizkera tekniko edo terminologia berezia erabiliko baldin bada, jakinarazi itzultzaileei zein den esanahi zehatza. Bestalde, hizkera zaindua erabiltzea eskatzen da, interpreteek itzulpena behar bezala egin ahal izan dezaten; izan ere, euskara traketsen egindako mintzaldiak ulergaitzak izan daitezke.

Aurkezpenak: Hitzaldian erabiliko den materiala interpreteak bere esku izan behar du.

Aurkezpenean powerpoint, gardenkiak, mapak, taulak edo antzekoak erabiliko badira, kopia bat eman interpreteei, dauden tokitik agian ezingo dute eta entzuleak pantaila handian ikusten ari direna ikusi. Horrez gain, zenbakiak eta izen bereziak (eta horien artean karguen izen osoak) itzultzea oso zaila da, eta taulak-eta erabiliz gero, aurrean edukitzea oso lagungarria izaten da.

Interpretearen eta hizlariaren arteko harremana, bilera baino lehen.

Bilera aurretik interpreteei jakinarazi (zuzenean edo idazkarien bitartez) hitzaldirik egongo den idatziz eta noiz pasako zaien interpreteei. Bestalde, interpreteek hizlariekin harremanetan jarri nahi izanez gero norengana jo behar duten ere adierazi.

"Elebitasuna": Ez errepikatu gauza bera bi hizkuntzatan.

Kontuan izan hizlariak euskaraz esaten duena aldi berean gaztelaniaz ematea dela interpreteen lanaren funtsa; beraz, euskaraz hasi eta ondoren gauza bera gaztelaniaz errepikatuz gero, interpretazio-zerbitzua erabiltzen dutenek bitan entzuten dituzte hitz berberak, eta hori aspergarri samarra gerta daiteke.

Donostian, 2003ko irailean